

# Gizarte Segurantzako afiliazioak EAEn, Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean

2024ko 1. hiruhilekoa

<https://www.euskadi.eus/empleo-en-comercio-y-reparacion-de-vehiculos/web01-s2tumerk/eu/>



Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko 1.hiruhilekoa)  
Hiruhilekoko batez besteko datuak


Afiliazio mota Jarduera	Autonomoak		Soldatakoak		Guztira	
	afiliazioak	urt.Aldaketa (%)	afiliazioak	urt.Aldaketa (%)	afiliazioak	urt.Aldaketa (%)
⊕ 45 - Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	2.866	-3,31 %	10.100	4,37 %	12.966	2,57 %
⊕ 46 - Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu	7.089	-3,39 %	33.085	2,10 %	40.175	1,08 %
⊕ 47 - Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	27.194	-3,02 %	53.688	1,99 %	80.882	0,25 %
<b>Total</b>	<b>37.149</b>	<b>-3,11 %</b>	<b>96.874</b>	<b>2,27 %</b>	<b>134.023</b>	<b>0,72 %</b>

## Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko 1.hiruhilekoa) urte arteko aldakuntzaren bilakaera

2024ko lehenengo hiruhilekoan, Merkataritza eta Ibilgailuen konponketaren sektoreko jardueretan, guztira, **134.023** afiliatu daude Gizarte Segurantzari (Euskal Autonomia Erkidegoan alta emanda dauden afiliatu guztien % **13,3**). Afiliazio kopurua sektorean % **0,7** igo da (2024ko 1. hiruhilekoa 2023eko 1. hiruhilekoaren aldean).


Merkataritzaren sektoreak euskal ekonomia osoak baino igoera txikiagoa izan du non afiliazioek % **2** ko hazkundera izan dute aldi honetan.

Sektorean gora egin duten soldatapekoek (% **+2,3**) eta behera autonomoek (% **-3,1**)




## Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko 1.hiruhilekoa) Jardueraren arabera

Jarduera-adarraren araberako azterketa




Urte arteko aldakuntza kopuru absolutuetan, jarduera-adarraren arabera. Δ 1T 2024 / 1T 2023



Sektoreko jardueretako afiliazioak, termino absolutuetan, 958 afiliatu gehiago erregistratu ditu (% 0,7) 2023eko lehenengo hiruhilekoan baino. Ibilgailuen salmenta eta konponketan 325 afiliazio gehiago erregistratu dira (% 2,6), handizkako merkataritzan 431 afiliazio gehiago (% + 1,1) eta, azkenik, txikizkako merkataritzan 202 afiliatu gehiago (% 0,3).

## Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko bukaera) Afiliazioak sexuaren arabera aztertzea

Generoari dagokionez, portaera oso feminizatua da txikizkako sektorean, % 68 emakumeak eta % 32 gizonak; Ibilgailuen salmenta eta konponketan eta handizkako merkataritzan, berriz, gizonezkoen enplegu-ratioa 4,9 eta 2,2 da, hurrenez hurren.




Jarduera	ratio gizonemakumeko
⊕ 45 - Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	4,86
⊕ 46 - Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu	2,16
⊕ 47 - Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	0,47
<b>Guztira</b>	<b>0,91</b>




Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko bukaera)  
Txikizkako merkataritzako afiliazioak sexuaren arabera aztertzea

Txikizkako merkataritzako SOLDATAKO afiliazioen banaketa, sexuaren arabera



Txikizkako merkataritzako afiliazio AUTONOMOEN sexuaren araberako banaketa



Txikizkako merkataritzaren afiliazio motaren eta generoaren araberako alderaketa eginez gero, soldatakoetan % 70,7a dela, eta autonomoetan % 63,3a dela, ikus daiteke.

## Gizarte Segurantzako afiliazioak Merkataritzaren eta ibilgailuen konponketaren sektorean (2024ko 1.hiruhilekoa) Metodologia

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak afiliazioei buruz emandako informazioaren ustiapenetik lortzen da aurkeztutako informazioa.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Estatistika orrian informazio gehiago aurki dezakezue Estatistika Organo Espezifikoak Gizarte Segurantzako afiliazioak ustiatzeari buruz :

[https://www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/com\\_estatis\\_sscm\\_port/eu\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-s2tumerk/es/contenidos/informacion/com_estatis_sscm_port/eu_def/index.shtml)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Estatistika Organoa

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO